

Karmengo Jaiak ere, bueltan

La Esperanza auzo elkarteak egun osoko egitaraua prestatu du hilaren 16rako, larunbatarekin, Oria auzoko hainbat gunetan / 7

TXINTXARRI

Herrikoak dira gogokoenak

'El Conquistador del Caribe' telesailiko finalista izan da Mikel Arruti, eta zaleek, lehiakide gogokoenak izendatu dute / 8-9

Udalak 15.000 euro bideratuko ditu familiei laguntzera, datorren kurtsorako eskola materiala erosteko / 3

Bizikleta Itzulian parte hartzeko deia egin du Sarek; hilaren 22an hasi eta 24an bukatuko da / 4

Artisau ugari batuko da Okendo plazan hilaren 24an, igandea. Santa Ana azoka iragarri du Lasarte-Oriako Udalak / 5

Bozketa epea amaitu ostean, argitu da nortzuk irabazi duten TXINTXARRI-ren jaietako argazki lehiaketa / 6

A Coruñan banderarik irabazi ez arren, Euskotren Ligako buruan da Donostia Arraun Lagunak / 10

Naroa Furundarenak zilarrezko domina irabazi du jauzi hirukoitzean, 23 urtez azpiko txapelketan / 12

30. urteurrena



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak, barandak, toldoak, armairuak, eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



Zozketa!

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS-en KUIKUI liburua eta AMAREN INTXAURRAK DVDa zozkatuko dugu!

Eman izena uztailaren 25a baino lehen.



harpidetza@ttakun.eus helbidean,
eta 646 82 44 66 (whatsapp)

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?



Ttakuneko bazkide izan nahi baduzu sar zaitez:
www.txintxarri.eus/bazkidetu

Aurrekontuak onetsi ditu udal korporazioak

Udal gobernuaren aldeko bozkekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin atera da aurrera egitasmoa; aurka egin dute EH Bildu eta ELOP alderdiek. Txostenari alegazioak aurkezteko epea hilaren 21ean bukatuko da, ostegunarekin

Txintxarri

Herriko jaiak hasi bezperan egin zuen udal korporazioak aurtengo aurrekontuak onartzeko ezohiko bilkura. Ia bi orduz eztabaidatu eta alderdien emendakinak aztertu ostean, onartu egin zuten egitasmoa, udal gobernu sozialistaren aldeko bozkekin eta EAJ-PNVren abstentzioarekin. Aurkeztutakoarekin ados ez, eta aurka azaldu ziren EH Bildu eta Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos.

"COVID-19aren pandemiak, Ukrainako gerrak eta iaz aurkeztu genuen hiru urterako inbertsio planak baldintzatu dute aurtengo aurrekontua", azaldu zuen Agustin Valdivia alkateak. "Batetik, aurrera eraman beharreko lanak diruz finantzatzeko, udalaren lursail eta higiezin batzuk besterendu ditugu, eta bestetik, herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak mantendu eta garatzeko baliabideak bideratu". Pandemiak eragindako inflazioak (%3,1ekoa 2021ean) eta eraikuntzako materialaren zein garraio kostuen igoerak udal kudeaketa "zaildu" egin duela azaldu zuen alkateak: "Atsobakarren eta Michelinen egin nahi ditugun inbertsioak 5 milioi euro baino gehiago garestitu dira".



Inbertsioetako bat Erribera kaleko etxabeak eraistea izango da. TXINTXARRI

Hori guztia esanda, zenbait diru partida nabarmendu zituen. Egoera zaugarrian dauden pertsonen atalean, zehaztu zuen 226.613 euro bideratuko direla larrialdi sozialeko laguntzetara. Sozioekonomiari dagokionez, gogoratu zuen Beterrri-Buruntza mankomunitatea sartu dela indarrean eskualdean enplegua sustatzeko, eta udalak tokiko merkataritza babesten jarraituko duela, zenbait laguntza lerroren bidez: 100.000 euro herriko dendetan kontsumitzeko, bonuen bitartez; 40.000 euro negozio

berriak ireki eta ekintzaileei laguntzeko; eta 18.150 euro tokiko lanbideak bultzatzeko plana egiteko, besteak beste.

Inbertsio esanguratsuenak

Aurrekontuaren zati handiena herriko ekipamenduetan udalak egin nahi dituen lanek hartzen dute. Hala, kirol instalazioei dagokionez, 3.942.565 euro bideratuko ditu kiroldegi berria egitera, 2.038.890 euro Atsobakar auzoko kirol gunera eta 465.000 euro skate eta parkour pista. Egitasmoan jaso ditu, halaber,

zenbait auzotako obrak, Erriberako etxabeen eraistea (4.119.556 euro) eta Zabaletako igogailua eraikitzea kasu (2.247.600 euro). Horrez gain, Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegia eraberritu nahi du: 905.000 euroren truke, herriko eragileentzako espazioa handitu eta eraikina klimatizatze sistemak bat jarri nahi du.

Hitzartzea amaitu aurretik, Valdiviak eskerrak eman zizkion EAJ-PNVri aurrekontuak onartzeko erraztasunak eman izanagatik, eta aho zapore "garratza" geratu zaiola adierazi, EH Bilduk eta ELOPek aurka bozkatu dutelako. "Udal gobernu kideok uste dugu hauek direla beharrezko eta uneotan posible diren aurrekontuak, herriak dituen behar guztiei erantzuteko".

Gainerako alderdien azalpenak

Udal gobernuaren proposamenak zortzi aldeko bozka, sei aurkako eta hiru abstentzio jaso zituen, eta onartuta geratu zen. Ostean, bakoitzak bere erabakiaren arrazioen berri eman zuen.

"Udalak egin asmo dituen inbertsioen kostuak asko igo dira, eta ez gaude ados horiek finantzatzeko moduarekin", adierazi duen ELOP alderdiko bozeramaile David Aresek. "Iaz, inbertsio plana aurkeztu zuenean udal gobernuak, abisua eman genuen, arazoak ekar zitzakeela, eta ikusi dugu hala izaten ari dela; gure iritziz, planak askoz ere zuzentzea izan behar zuen". Horrez gain, atsekabez hartu du udal gobernuak 500.000 euroko partida kendu izana, azken urteetan aurrekontu parte hartzaileetara bideratu izan dena. "Hori zen lasarteoriarrei ahotsa emateko tresna".

EAJ-PNVk abstentziora jo izanaren zergatiak aletu zituen ondoren Jon Antxordokik. "Aurtengo aurrekontuek ez dakarte berrikuntzarik, eta udal gobernu ez da gai izan 2021ekoak behar bezala kudeatzeko, izan ere, inbertsioen %10 besterik ez du gauzatu, eta horrek Lasarte-Oria geldiarazten du". Alderdi jeltzalea "arduratuta" dago, proiektuak aurrera eramateko lau hilabete besterik ez dituztelako izango udal langileek. "Egitasmo bat ekain amaieran aurkeztea udal gobernuaren lidergo politiko faltaren seinale da; atzerapen horrek tentsioa areagotuko du aurrekontuaren aplikazioan". Abstentziora jota EAJ-PNVk ahalbidetu egin du udal gobernuaren proposamena onartua izatea, baina Antxordokik ohartarazi du "konpromisoak" eskatuko dizkiotela jeltzaleek udal gobernuari. "Ezin du ziurgabetasunaren eta lehengaien garestitzearen atzean ezkutatu, bera baita egitasmoak lehenago abian jarri ez izanaren erantzule".

Azkenik, EH Bilduren jarrera esplikatu zuen Jon Martinek, eta salatu udal gobernuaren aurrekontuek ez dietela herritarren behar eta etorkizuneko erronkei "behar bezala" erantzuten. "Agintean daudenen noraeza, anbizio falta eta ikuspegi estrategiko baten gabezia islatzen dituzte; proiektu agortu baten zerbakiak dira, udal gobernuaren kudeaketa txarraren argazki adierazgarriena". Hori adierazi eta gero, zenbait atal hartu zituen hizpide Martinek, hala nola, egoera zaugarrian dauden pertsonen, etxebizitzena, berdintasunarena edo tokiko merkataritzarena. Laguntzak murriztea eta plan estrategikoak ez izatea leporatu zion udal gobernuari.

Miguel Angel Blanco oroitzeko, kontzentrazioa egin dute

Mende laurden bete da ETAK PPko zinegotzia erail zuenetik; Lasarte-Oriako Udalak deituta, elkarretaratze isila egin dute

Txintxarri

Hilaren 13an 25 urte bete ziren ETAK Miguel Angel Blanco erail zuenetik; PPko zinegotzi zen orduan, Ermuan (Bizkaia). Bahitu eta buruan bi tiro eman zizkieten, Lasarte-Oriako Oztaran auzoan

(Sorgin Zulo izenez ezagutzen den eremuan) utzi baino lehen. Larrialdi zerbitzuak bertara iritsi zirenean, Blanco bizirik zegoen oraindik, baina zauriei buelta eman ezinda, ospitalean hil zen. atentatua jazo eta

hurrengo egun, aste eta hilabeteetan ugariak izan ziren erailketa gaitzesteko manifestazio eta mobilizazioak.

Blancoren eta "terrorismoaren biktima guztien" oroimenez, Lasarte-Oriako Udalak elkarretaratze isila aurrera eraman zuen Okendo plazan: korporazioko kideak, udal langileak eta herritarrek bertaratu ziren, eta bost minutuz egon ziren bertan. Ekintza hori Udallerrien eta Probintzien Espainiako Federazioak sustatu du.



Korporazioko kide eta udal langileak, Okendo plazan. TXINTXARRI

Kurtso hasiera horren aldapatsua ez izateko

Lasarte-Oriako Udalak 15.000 euroko laguntza lerro bat prestatu du, familia behartsuenei eskolako materiala erosten laguntzeko asmoz. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 30ean bukatuko da, eta 40.000 eurora arteko diru sarrerak dituztenek egin ahalko dituzte

Txintxarri

Iraila aldapatsua izan ohi da: oporretatik itzulera, errutinara buelta, ikasturte hasiera... Garai hori horren maldatsua izan ez dadin, dirulaguntza lerro bat prestatu du Lasarte-Oriako Udalak; helburua da behar handiena duten familiei laguntzea eskolako materiala erosten. 15.000 euro bideratuko ditu horretara. Interesa duten herritarrek irailaren 30era arte egin ditzakete eskaerak, baina baldintza bat bete beharko dute ezinbestean: urtean jasotzen dituzten diru sarrerak 40.000 euro baino gehiagokoak ez izatea.

Agustin Valdivia alkateak eta Hezkuntza zinegotzi Maite Iglesiasek eman dute egitasmoaren nondik norakoen berri Carretero liburu dendan, bertako jabe Julen Izagirrekin batera. "Herritarrek premia handia duten garaiotan ari gara laguntza berriak sortzen edo lehendik zeudenak indartzen, ikasmateriala erostekoaren kasuan bezala", azpimarratu du Valdiviak. Azaldu du eskatzaileek jaso dezaketen ekarpena urtean ingresatzen duten diruaren arabera izango dela: 25.000 euro edo gutxiago jasotzen dituztenek, 110 euro gehienez; 25.001 eta 33.000 euro artean dabilzanek, 90 euro; eta 33.001



Carretero liburu dendan aurkeztu dituzte aurtengo laguntzak udal ordezkariak. TXINTXARRI

eta 40.000 euro bitartekoek, 50 euro. Jasotzen duten dirua herriko komertzioetan gastatu beharko dute lasarteoriatarrek.

Herrian erroldatuta

"Laguntza eskatzen dutenak gure herrian erroldatuta egon beharko dute", jakinarazi du Iglesiasek. "Hori bai, haien seme-alabek ez dute zertan Lasarte-Oriako zentzoren batean ikasi, inguruko herrietan ari badira ere aukera dute". Esan bezala, izena emateko azken eguna irailaren 30a izango da; tarte horretan egiten dituzten erosketen tiketak gorde egin

beharko dituzte herritarrek, udalean aurkezteko gero. "Liburu, koaderno, arkatx, boligrafo, kiroletako arropa... Material hori guztia eros dezakete".

Lehen edo Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako erdi mailako zikloak egiten ari diren ikasleei zuzenduta dago dirulaguntza lerroa, Iglesiasek arabera. "Urteak daramatzagu aukera hori ematen, eta esperientziak esaten digu 15.000 euro bideratzea nahikoa izango dela eskaerak egiten dituzten familien beharrak asetzeko", amaitu du Valdiviak.



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

Musikaren industria eta emakumeak

Genero arrakalak pairatzen egon gara eta jarraituko dugu urte luzeetan zehar, eta orokorrean desberdintasun eta oztupoak merkatu guztietan aurkitzen ditugun arren, gaur musikaren industriad hitz egitera natorkizue.

Genero diskriminazioak ia edozein lan eremutan aurki ditzakegu. Bereizkeria, sexu jazarpena edota abusua, laboralki aurrera egiteko aukera falta, soldata arrakala, parekotasun eza, kristalezko sabaia eta ikusezintasuna emakumeok lan munduan bizi izan ditugun eta bizi ditugun errealitateak dira. Eta tamalez, musikaren sektoreari lotutako munduan ere ez da arrotza, genero arrakala hauek oso ohikoak baitira industria honetan, baita aurre egin behar diegun emakumeen aurka dauden aurreiritziak ere. Desberdintasun horiek musikari, musikagile, musika ekoizle, soinu injineru eta alor honetan lan egiten edo lan egiten saiatzen garen emakumeengan du eragina, ez soilik oholtzaren gainean ikusten ditugunengan.

Estereotipoz beterik dagoen espazio batean aurkitzen gara eta sistema honek gure buruarekin zorrotzeziak izatea eragiten digu, eta gurekiko oso begirada kritikoa dugu. Oholtzaratu edo nire instrumentua esku artean izan dudana bakoitzean beti pentsatu ohi dut: "Hau ez da behar bezain ona".

Urte askoan, arlo horretan profesionalki aurre egin nahi izan duten emakumeek zailtasun handiak aurkitu dituzte beraien bidean. Musika industria emakumeen jokabide jakin batzuk gaitzetsi eta musika ideologia jakin batzuk egiteko gaitasunak zailtzen jartzen dituen ideologia zapaltzaile bat inposatu duen klase hegemoniko batek kontrolatu du. Horrek, gainera, musika munduan bide erakusle eta inspirazio izan daitezkeen emakume errefente falta ekarri du. Baina mundua aldatzera gatoz. Bazterturik, ordezkaturik, bidegabezko soldatekin, musikari eta musikagile garen emakumeak itzaletik argira atera nahi dugu eta aterako gara.

Munduak emakumeak ikusteko duen modua aldatu nahi dugu. Emakumeok gure burua nola ikusten dugun zailtzen jarri nahi dugu. Arau inkontzientek, alborapen esplizituak eta genero desparekotasuna eusten eta eragiten duten eguneroko ekintza guztiak hautsi nahi ditugu. Gizartean aurrera egin behar dugu, gu gara aldaketa honen motor txikia eta musikaren mundua eta gure mundua ulertzeko modu patriarkala izatea aldatu behar dugu.

Inoiz egokitasun eza, segurtasun eza sentitu baduzu, edo tradizionala, xelebrezia, itsusiezia, erakargarria, lotsatiezia, edo kanporakoezia sentitu bazara, ongi etorri. Ez izan beldurrik zarata egiteko, gure espazioaren alde borrokatzeko, geure burua zailtzen jartzeko eta iraultzeko. Elkarrekin egin dezakegu eta orain egin behar dugu.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

"PUBLIZITATEA DA
INBERTSIORIK ONENA"

HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU
HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



Sarek gure eskualdean dituen taldeetako hainbat ordezkari Okendo plazan elkartu ziren. TXINTXARRI

Bizikleta Itzuliarekin bat egiteko deia egin dute

Euskal presoen eskubideen alde eta aplikatzen zaizkien salbuespen neurrien aurka, Sarek kilometroak egiten jarraituko du udan, Izan Bidea dinamikaren barruan. Bizikleta Itzulia da antolatu duen ekintzetako bat; hilaren 22tik 24ra egingo dute

Txintxarri

Sare Herritarrak bizikletak hartu eta Euskal Herria zeharkatzeko deia egin du: Bizikleta Itzuliaren bosgarren aldia antolatu du, hilaren 22tik 24ra. Azken eguneko etapa Azpeitiatik Donostiara artekoa izango da, eta horretan parte hartzeko deia egin dute eragileak gure eskualdean dituen taldeetako kideek: prentsa agerraldia egin dute Okendo plazan, ekintzaren aurretik motorrak berotze aldera.

Izan Bidea dinamikaren barruko jardura da Bizikleta Itzulia. Egitasmo horren helburu nagusia da euskal presoen eskubideen aldeko aldarriak lau haizetara zabaltzea, eta haiei aplikatzen zaien salbuespen legediaren aurka egitea. "Berebizikoa da neurri horiek behin betiko bukatzeko eskaera egiten jarraitzea, izan ere, presoen %36 Espainiako kartzeletan baitaude oraindik, haien senide eta lagunengandik urrun".

Bizikleta Itzulia egin nahi dutenek Sareren webgunean eman dezakete izena, esteka honetan: <https://sare.eus/bizikleta-itzulia/>. Etxarrin (Nafarroa) hasiko da, eta Donostian bukatu. Hiru etapatan banatuko dute ibilbidea: Etxarritik Durangora izango da lehenengoa, Durangotik Azpeitiara bigarrena, eta Azpeitiatik Donostiara azkena. Aurreneko bietako bat egin nahi dutenek 25 euro ordaindu beharko dituzte, eta hirugarrenak, 15. Itzuli osoak, berriz, 65 euro balio ditu.

Eskualde mailan, asmoa da azken etaparekin bat egitea, eta hitzorduak jarri dituzte horretarako: lasarteoriarrak,

LASARTE-ORIAKO SAREK HILAREN 24AN JARRI DU HITZORDUA, OKENDO PLAZAN, 11:00ETAN

adibidez, Okendo plazan elkartuko dira, 11:00etan.

Mobilizazioa Donostian

"Udako jaien testuinguruan, salbuespen legedia salatu eta euskal presoen herriratzea bere osotasunean gauzatzeko mobilizazioak antolatu ditugu", jakinarazi du Sarek. Horietako bat Donostian egingo du, abuztuaren 20an, larunbatarekin, Aste Nagusia ospatu bitartean.

Izan Bidea dinamika datorren ikasturte hasieran bukatuko da, urriaren 8an, Donostian egingo duten manifestazioarekin, *Etxera bidea gertu* lelopean. Goiza aldarrikapen mezuak zabaltzeko erabiliko dute, eta festa 15:30etik aurrera hasiko da, Illunben, makina bat musikari eta artista gonbidaturekin: Belako, Liher, Rotten XIII, Zea Mays, Esne Beltza, Dupla, McOnak, Doctor Deseo, Eñaut Elorrieta, Josu eta Gari (Hertzainak), Su Ta Gar, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak, besteak beste.



Zenbait herritar, Kale Nagusian. TXINTXARRI

Koronabirusaren intzidentzia igo egin da azken egunetan

Hilaren 4tik 10era 152 kutsatze atzeman dituzte Lasarte-Orian; intzidentzia tasa metatua 1.477,14koa da

Txintxarri

COVID-19ak eragindako kasuak albiste dira berriro ere. Beste hainbat herritan bezala, koronabirusaren intzidentzia nabarmen igoen ari da Lasarte-Orian ere, azken egunetako datuek erakusten dutenez: hilaren 4tik 10era 152 kutsatze atzeman zituzten gure herrian, aurreko zazpi egunetan baino hemeretzi gehiago. Aspaldi ikusten ez ziren zenbakiak erregistratu dituzte egunegun, horren adibide, hilaren 5ean detektatutako 53 positiboak. Osakidetza eta Eusko

Jaurlaritzako Osasun Sailak eman dituzten azken datuak eskuetan, intzidentzia tasa metatua 1.477,14koa da.

Osasun agintariak zifra horiek herriz herri ematen hasi zirenetik, Lasarte-Orian 6.766 kutsatze diagnostikatu dituzte. Gehien-gehienak osatu dira edo horretan ari dira, baina 24 bizilagun hil dira. Gaur-gaurkoz, intzidentzia gehieneko hilabetea aurtengo urtarrila izan da; 31 egunetan 2.120 positibo zenbatu zituzten. Iazko abendua (942) eta aurtengo otsaila (329) dira bi hurrengoak.



EUSKARAREN MARATOIA

Motorrak berotzen hasteko

Euskararen 10. Maratoialdia ospatuko dugu urrian, abendura arte luzatuko dena, Euskaraldiaren amaierara arte. Motorrak berotze aldera, Isa Fernandez de Agirrek aurreko Maratoietako irudiekin egindako ikus-entzunezkoak argitaratzen hasi da TXINTXARRI, atari digitalean. Oraingoz, lehenengoa ikus dezakezue, 1986koa, hemen: <https://txintxarri.eus/bereziak/euskararen-maratoialdia>.

Artisau produktuz beteko da Okendo plaza

Santa Ana azoka iragarri du Lasarte-Oriako Udalak datorren asteko iganderako, hilak 24. Artisau produktuak ikusi eta erosi ahal izango dituzte herritarrek, eta baita jateko produktuak ere. Okendo plazan eta Mercero gune inguruan izango da azoka

Txintxarri

Santa Ana azokak hartuko du Okendo plaza eta Mercero gune ingurua datorren asteko igandean, hilak 24. Hala jakinarazi du Lasarte-Oriako Udalak, prentsaurrean. Goizeko 10:00etan zabalduko ditu ateak, eta 14:00ak arte izango da erosketak egiteko aukera. Bazkaldu eta atsedenerako tartetxo bat izango dute gero artisau eta ekoizleek eta arratsaldean, berriz ere izango da azokan ibiltzeko aukera: 17:00etatik 20:00etara.

Eventos globales enpresa arduratu da azoka antolatzeaz (iaz ere beraiek egin zuten lan hori), eta postuen antolaketaren berri eman du bertako ordezkari Asier Velazquezek. Jakinarazi du Okendo plazan egongo direla artisauak, eta Merceron, berriz, elikadura produktuak. Zehaztu du udaletxe azpiko arkuetan herriko artisauak bisitatu ahal izango dituztela azokara joango direnek.

Bitxiak, larruz zein egurrez egindako produktuak, jantziak, pilotak eta beste hainbat eta hainbat produktu erosteko aukera izango dute interesatuek. Horrez gain, zapatagintza, egur taila eta ehundegi lanak nola egiten diren ikusi eta ikasi ahal izango dute. Gipuzkoa eta Bizkaikoak izango dira azokan parte hartuko duten artisau guztiak.

Egitasmoaren inguruko informazio gehiago nahi duenak honako web atarian aurkituko du: <https://santaanalasarte.com>.

Berrikuntza bat

Orain arteko Santa Ana azokekin alderatuta, berrikuntza bat dakar aurtengoak. Goiza goxatzeko talo postu bat ekarriko dutela jakinarazi du Velazquezek. Horiek dastatzeaz gain, jakia nola egin ikasteko aukera izango dute etxeko txikienek. Izan ere, urtero bezala tailerrak antolatu baitituzte eurentzat. Ogia eta gailetak nola

egin ere erakutsiko diete. Helduenek, ordea, zapatagintzaz, ehungintzaz eta egur tailaz ikasi ahaliko dute.

Bi egun geroago, parodia

Bi urte eta gero, Okendora itzuliko da Santa Ana Eguneko parodia. Aurtengoak, gainera, ordutegi berria izango du; 20:30ean izango da. Horren aurretik, ordea, 18:30ean, desfilea egingo dute. Jalgi kafe antzokitik abiatu eta herrian barrena ibiliko dira. Emanaldi aurreko afaria, berriz, Semblante Andaluz elkartearen izango dela iragarri dute antolatzaileek.

Urtero omendu ohi du herriko eragile bat parodiak, eta aurtén Dinbi Banda batukada taldeak jasoko du aintzatespena. Taldearen hamargarren urteurrena aitzakia hartuta erabaki du hori Ttakun Kultur Elkarteak.

Datorren astean izango dira azken entseguak; hilaren 18, 19, 20 eta 21ean, 18:30ean, kultur etxean.



Hilaren 14an aurkeztu zuten aurtengo Santa Ana azoka. TXINTXARRI



Artxiboko irudi batean, aktoreak Santa Ana Eguneko parodia antzetzten. TXINTXARRI

Akrobaziak eta umorea

Uztaila iritsi da eta horrekin kaleko kultur jarduerak. Circo Chosco bikoteak zirku ikuskizun entretenigarria egin zuen bigarren asteburuan: kuboek edota egunkari batek askorako eman dezaketela argi utzi zuten, akrobazia eta jolasen bidez.

Lasarteoriarrek Okendo plazan zeuden eserlekuak bete zituzten eta gogotik gozatu zuten.



TXINTXARRI

Kuadrilla + Blusak argazki lehiaketaren emaitzak



Paintball Donostian saio bat. 269 bozka.



Avenida taberna-jatetxean luntx eder bat. 207 bozka.



Donostia Paintball-en saio bat. 269 bozka.



Avenida tabernan luntx bat. 207 bozka.



73 bozka.



66 bozka.



51 bozka.



42 bozka.



26 bozka.



24 bozka.



21 bozka.



19 bozka.



Karmengo Jaiek hartuko dute sanpedroen lekukoa

Egun osoko egitaraua prestatu du La Esperanza auzo elkarteak Oria auzoan: diana, buruhandiak, haurrentzako jolas eta tailerrak, meza, luntxa, toka txapelketa eta, nola ez, Sorgin Dantzak osatzen dute egitaraua, beste jarduera batzuen artean

Txintxarri

Lasarte-Oria festa giroan murgiltzear da berriro. Karmengo Ama Birjinaren omenezko jaiak ospatuko dira Oriar bihar, hilak 16, larunbatekin, egun osoz. La Esperanza auzo elkarteko lagunek goizetik iluntzera arteko programa prestatu dute, ilusioz eta gogoz, 2019tik ezin izan baitituzte auzoko festak ohi bezala egin. Herritar oro gonbidatu dute Oriara bertaratu eta jardueraz gozatzera.

Beste jai askotan bezala, txistulariek esnatuko dute auzoa, 10:30ean, dianarekin. Ordu erdi geroago, haurrentzako tailerrak hasiko dira, Oria etorbideko plazan. Ordu bete izango dute eskulanak amaitzeko, buruhandiak bazterrak nahastera heldu aurretik, eta meza nagusia hasi baino lehen. Ohi bezala, fededunak Karmengo Ama kaperan elkartuko dira. Xumela koruko lagunek parte hartuko dute elizkizunean. Elizatik atera



Toka txapelketa izango da arratsaldeko jardueretako bat. TXINTXARRI

ostean, luntx goxo bat dastatzu indarrak berrituko dituzte. Goizeko ekimenekin amaitzeko, emanaldi koloretsua egingo du Porrotx pailazoak, 13:30ean.

Aurreikuspenen arabera, bero egingo du larunbatean, eta, horren

aurka, ur jolasak prestatu dituzte antolatzaileek haurrentzat, bai eta jolasak eta askaria ere. Helduak, berriz, toka txapelketan ariko dira. Oriako Sorgin Dantzak ere ez du hutsik egingo, eta kirol jarduerak zein musikak ere ez.

Oria auzoko Karmengo Jaiek 2022

La Esperanza auzo elkarteak egun osoko egitaraua prestatu du, Karmengo Ama Birjinaren omenezko festak ospatzeko.

Programa

- **10:30ean**, txistulariekin diana, auzoan barrena.
- **11:00etan**, haurrentzako tailerrak, Oria etorbideko plazan.
- **12:00etan**, buruhandiak, auzoan barrena.
- **12:00etan**, meza nagusia, Karmengo Ama kaperan, Xumela koruaren parte hartzearekin.
- **13:00etan**, luntxa, Plazido Muxika enparantzan.
- **13:30ean**, Porrotx pailazoaren emanaldia: kantu, irri eta dantza.
- **16:30ean**, ur jolasak haurrentzat: ur pistolak eta globoen gerra, Brunet-Enea parkean.
- **17:00etan**, gaztelu puzgarriak eta aurpegia margotzeko tailerrak, Brunet-Enea parkean.
- **17:00etan**, haurrentzako askaria, Eroskik babestuta, Brunet-Enea parkean.
- **17:00etan**, toka txapelketa, Plazido Muxika plazan.
- **19:00etan**, zunba eta kangoo saioak, Brunet-Enea parkean, Saito gimnasioko lagunak eskutik.
- **20:00etan**, DJ Karpin, Brunet-Enea parkean.



Mezaren ostean, luntx goxoa dastatuko dute lasarteiariarrek. TXINTXARRI

San Pedro Jaieen balorazio positiboa egin du udalak

Eguraldiak baldintzatutako jaiak izan arren, herritarrek kaleak bete dituzte jarduera ugariz gozatzeko

Txintxarri

Egun batzuk igaro dira San Pedro Jaiei amaiera eman zitzaienetik eta udal ordezkariak prestaketan eta jardueran balorazioa egin dute. Agustín Valdivia alkateak festak giro ederrean eta errespetuz igaro direla nabarmendu du: "Herritarrek gogoia zuten eta nabaritu da".

San Pedro Jaieko planifikazioa ongi joan dela adierazi du. Ertzaintza eta Udaltzaingorearen elkarlana, Gurutze Gorriarekin egindako hitzarmena eta kale garbiketaren erfortzua izan dira aipatutako arloetako batzuk. Kale

Nagusiko mozketak nabarmendu ditu. "Jaietan kalea 24 orduz moztea beharrezkoa ez dela konturatu gara. Ekitaldien arabera egin dira mozketak eta nahikoa dela ikusi dugu", onartu du alkateak. Eta Dial al Sol emanaldiko zerbitzu bereziak ere ez ditu ahaztu, "ongi funtzionatu zuten, baina egunak ez zuen lagundu".

Eguraldia, aitzakia ez

Egitarauaren gainean jardun da Txus Alonso Jaieko batzordeburua eta jarduerak ia bere osotasunean bete zirela aipatu du.



Herritarrek Okendo plaza bete zuten, arratsaldeko txupina ikusteko. TXINTXARRI

Ekintza bakarra izan zen bertan behera geratu zena; COVID-19a tarteko, Iturengo Ttuntturroak ezin izan ziren etorri. Eta eguraldi txarra festetaz gozatzeko aitzakia izan ez dela jakitera eman du. Ekainaren 29ko arratsaldeko zein ekainaren 30eko ekintzetako batzuk moldatu edo lekuz aldatu zirela adierazi zuen. Euriak Dial Al Sol kontzertuan sortu zituen

arazo teknikoak ere aipatu ditu: "Elektrizitate sarean arazoak izan genituen. Andatza plaza jendez lepo zegoen eta taldeek emanaldiarekin aurrera egiteko erabakia hartu zuten. Eta hori eskertzekoa da".

Orokorrean ekitaldiak jendetsuak izan direla nabarmendu du. Egitarauaren zeuden berrikuntzak -pilota

partida profesionala, Freestyle erakustaldia eta gazte gunea-nabarmendu ditu, izan duten harreragatik.

Kontzertuei eta dantzaldiei dagokionez, Okendo plazako kontzertuek plaza beteaz gain, ikusgarriak izan direla onartu du. Eta jai amaiera emateko Vulcano pirotekniak egindako su artifizial erakustaldia ere gogoratu du.

Jaietako batzordeburuak gainera, San Pedro Jaiek osatzen lagundu duten elkartei eskerrak eman dizkie, baita udal langileei ere. "Bereziki, Juantxi Ugarte teknikariaren lana nabarmendu nahiko nuke", aipatu du.

Amaitzeko, 2023ko San Pedro Jaieko proposamenak jasotzen hasi eta laster horiek lantzen hasiko direla jakitera eman du Alonsok.

Maddi Zaldua

Bigarren urtez jarraian, herritar batek irabazi du *El Conquistador del Caribe* telesaila ikusten dutenen lehiakide gogokoaren saria. Mikel Arruti (Lasarte-Oria, 1999) izan da saritua, eta Leire Mayozi hartu dio lekukoa. Aurtengo edizioko garaile izateko puntuan ere egon da. Finaleraino iristea lortu du, baina ez, ordea, Ikurrina etxeratzea. Lan bikaina egin du hasieratik amaierara arte, etengabe borrokatu dela garbi ikusi ahal izan dute ikusentzuleek. "Pozik" dago egindako lanarekin, eta bizitakoen berri eman dio TXINTXARRI aldizkariari. **'El Conquistador del Caribe' telesailaren XVIII. edizioa amaitu berri da, eta garaile izateko puntuan egon zara. Zer moduz zaude, pozik?**

Oso pozik nago iritsi naizen lekura iritsi izanagatik. Halere, arantzatxo bat ere badut, ezin izan dudalako ikurrina etxera ekarri, baina asetuta egin dudan lanarekin. Bizipen guztietan, alderdi positiboari erreparatzen saiatzen naiz.

Lehiaketa oso ona egin duzula ikusi dugu telebistan. Zuk nola bizitu duzu abentura barrutik?

Bai, nik ere lan ona egin dudala uste dut. Talde urdina ahulenek osatu ohi dute, baina, nire iritziz, oso ongi aritu gara lehiakide guztiok. Maila pertsonalean ere ondo ikusi dut nire burua. Elkarbizitzan, taldea ordezkatzera joan behar izan dudanean, dueluetan ondo moldatu naiz. Inguruko jendeak ere esaten dit lehiaketa ona egin dudala.

Gustura geratu nintzen egindako lanarekin, eta orain, etxetik telesaila ikusita ere pozik nago. Ezagutzen dut esperientzia bizi eta kanpotik ikusi eta gero sentsazio ezberdinak izan dituen lehiakiderik, baina niri ez zait halakorik gertatu.

Balorazioa positiboa da orduan.

Bai, eta iaz gertatu zena eta gero, are gehiago.

Estrategia zehatzen bat jarraitu duzu?

Ez, etorri dena etorri bezala bizitu dut. Hori bai, garbi nuen hasiera-hasieratik %100 ematea ezinezkoa zela. Telesaila gogorra da; ez duzu ongi jaten ezta deskantsatzen ere,

"GUSTURA GERATU NINTZEN EGINDAKO LANAREKIN, ETA ORAIN, ETXETIK IKUSITA POZIK NAGO"

"Indartsu ikusidut nire burua; lan ona egin dudala uste dut"

MIKEL ARRUTI 'EL CONQUISTADOR DEL CARIBE' SAIOKO LEHIKIDE ETA SARITUA 'El Conquistador del Caribe' saioaren XVIII. edizioako finalista izan da. Ezin izan du Ikurrina altxa, baina ez da esku-hutsik geratu; zaleek lehiakide gogokoena aukeratu baitute



Mikel Arruti, Ttakunenean, TXINTXARRI-rekin elkarrizketa izan zuen egunean. TXINTXARRI

hortaz, hasieratik dena ematen baduzu, iristen da momentu bat gorputzak ezin duena aurrera jarraitu. Ikusi ditut hasieratik jarrera hori izan dutenak, eta, adibidez, zauri asko egin dituztenak eta horiek sendatzeko zailtasunen ondorioz, bidean geratu direnak. Beti irabaztera joan behar da, baina indarrak neurtuz; gorputza zaintzea oso garrantzitsua da.

Saiatu naiz liskar askotan ez sartzen, horrek ondorioak izan zitzaizkela nigan, baina, gainerakoan, ez dut estrategia berezirik erabili.

Orduan, estrategia ez da beharrezkoa telesailaren parte hartzeko.

Ez da ezinbestekoa, baina nik esango nuke, hasieratik arreta deitzea ez dela ona.

Finalera iristea lortu duzu, baina ikurrina ezin astindu geratu zara. Zerk huts egin zuen? Uretan banderaxoa ezin aurkitu ikusi zintugun.

Zozketan ez nuen zortetik izan, uste baitut nirea zela urrunen zegoen banderaxoa. Gainera, begi bostara iruditu zitekeen laranja kolorekoa izanagatik ikusteko errazena izan zitekeela, baina urazpiko begetazioaren ondorioz, ez zen garbi ikusten. Proba amaitu ostean, urpekari batek eramanez nirean non zegoen ikustera, eta hark, gordeta zegoen leku zehatza bazekien arren, kosta egin zitzaion aurkitzea. Topatu

zuenean esan zidan non zegoen, eta jarraitzen nuen garbi ikusi ezinik.

Gainera, ukipen lenteak erabiltzen ditut eta finalerako proban jantzita neramatzanez, galdu egin nituen uretan. Horiek hartu edo ez erabaki behar izan nuen zein proba egitea egokituko zitzaigun jakin aurretik. Bagenekien finala jokatzera gindoazela, baina ez uretan aritu beharko ginenik; hortaz, lagungarri izango zirelakoan hartzea erabaki nuen, baina galdu egin nituen. Orokorrean ez nintzen oso fin aritu.

Nola bizitu zenuen egun hura?

Une hartan amorru handia sentitu nuen. Nire burua oso ondo ikusten nuen finalean. Indartsu sentitzen nintzen, eta frogaren ezaugarriak ikusita uste dut oso aproposa zela niretzat. Lehiaketa osoan zehar sentitu dut nire gorputza oso ondo erantzuten ari zela, uste baino askoz hobea.

Eta platotik?

Platotik egoera kudeatzea ez da erraza. Nik dagoeneko banekien ez nintzela garailea, baina argitu gabe zegoenez, posizio horretatik hitz egin behar duzu. Garaile izan zaitzekenaren itxura egin behar duzu azken unera arte, jakin badakizunean hori ez dela hala. Ingurukoekin berdin gertatzen da, haiek ere ez baitakite zer gertatuko den.

Zirraraz ere bizitzen dira une asko, senide eta lagunak bertan egon ziren, eta horien babesarekin dena da errazagoa.

Finala bera inoizko bereziena izan da; bi garaile izan ditu lehenengoz.

Oso berezia izan da guztiontzat. Bi garaileek uste zuten berdinketa egin zutenez, beste probaren bat eginaraziko zirela irabazte bakarria izendatzeko. Harrigarria izan da; batera amaitu zuten proba.

Dena den, ez zara esku hutsik geratu. Zure saria ere eskuratu duzu; ikusleen lehiakide gogokoena izan zara. Ederra da hori ere, ezta?

Banekien sari hori irabazteko aukerak nituela, jende ugari adierazi baitzidan nahi hori. Sekulakoa izan da jaso dudan babesa. Izugarria da saria irabazi izana, baina nola gertatu den deigarriagoa da oraindik. Inoiz

"EZ NUEN ZORTERIK IZAN FINALA JOKATZEKO ZOZKETAN ETA EZ NINTZEN FIN ARITU"

(24.000) pilatu ikusleen lehiakide gogokoenak, eta bigarren bozkatuenaekin (11.000 bozka) alde nabarmena egon da. Hitzik gabe geratu nintzen.

Lehiakide gustukoena nor den argitu behar den unea ere berezia da, nominatuok ez baitugu gertatzen ari dena ikusten. Bizkar atzealdean dugun pantailan agertzen dira bozketa horri dagozkion datuak. Ni, adibidez, lagun baten garrasiagatik jabetu nintzen. Parez pare nituen, eurek ikusten zuten pantailan agertzen ari zena, eta garaile nintzela ikusi zuenean, sekulako garrasia egin zuelako jakin nuen ni nintzela aukeratua. Urduritasun handiko uneak dira, zirrarra eta bizipen askokoak, politik horiek ere.

Beste lasarteoriatar bati hartu diozu lekukoa, Leire Mayozi.

Bai, polita izan da hori ere. Jakin zuenean gainera, idatzi egin zidan. Askok poztu zela esan zidan, eta lehiaketa oso ona egin nuela. Nik ere adierazi nion zaleen lehiakide gogokoena bigarren urtez jarraian herritarrek lortu izana oso handia dela.

Nolako keinuak jasotzen ari zara itzuli zarenetik? Eta lehiakide gogokoena izendatu zaituztenetik?

Hasieratik nabaritu dut jendearen arreta. Askok geratu naute kalean, argazkiak eskatu dizkidate, eta abar; telebistan agertzeak dakar hori. Horri dagokionez, aldaketa handia antzeman nuen hasieratik. Lehengo urtean, adibidez, abenturan gau bakarria egin nuen arren, sekulako babesa jaso nuen. Aurten, areagotu egin da jendearen erantzuna.

Iaz Dominikar Errepublikan gau bakarra igaro eta lehiatzeko aukerarik gabe bidali zintuzten etxera. Aurten, ordea, finala jokatu duzu. Garbi geratu da injustua izan zela lehengo urteko erabaki hura eta merezi zenuela hor egotea, ezta?

Bai, baina ez aurten finalera iritsi izanagatik bakarrik. Uste dut abentura bizitzeko aukeratzen duten lehiakide guztiek merezi dutela bertan parte hartzeko gutxieneko aukera bat. Aurten, egin dudan ibilbideak erakuts dezake merezi nuela lehiatzea, baina hori hala izan ez balitz ere, hau da, adibidez lehenengo dueluan kaleratua izango banintz ere, mereziko nuen berdin berdin.

Kendu duzu arantzatxoa?

Iazko arantzatxoa kendu dut aurtengo parte hartzearekin, baina finala ez irabazi izana, berriz,



Arruti, soketatik eskegita 'El Conquistador del Caribe' telesaiean lehiatzen ari zen une bat, kolore urdineko banderaxoa eskuartean duela. EL CONQUISTADOR DEL CARIBE

betiko geratuko da nigan; beste arantxo bat da hori.

Fisikoki irabazteko prestatu zinela esan zenigun lehengo urteko elkarrizketan. Aurten ere aurreprestaketa eginda joan zara?

Iazkoaren prestaketa oso antzekoa egin dut aurtengo lehiaketarako; abenturan gaintitu beharreko teknikak praktikatu nituen. Jende dezente adierazi dit aurten, itxuraz fuertea goi ikusi nauela, baina adin kontuagatik dela esango nuke. Nire adinean [22 urte ditu] urte batetik bestera aldaketa nabarmenak gertatzen dira, baina prestaketa fisikoa, iazkoaren oso antzekoa izan da.

Prestaketa mentalari garrantzia eman diot aurten; abenturara abiatu baino hilabete lehenago psikologoarengana joaten aritu nintzen.

Ezinbestekoa da egoera fisiko on bat izatea, baina mentalki ere prest egon behar da hainbat egoerari aurre egiteko, ezta?

"PRESTAKETA FISIKOARI BEZALA, MENTALARI ERE GARRANTZIA EMAN DIOT AURTEN"

Bai. Fisikoki gaitasun batzuk behar dira lehiaketan aurrera egin ahal izateko, baina mentalki ere prest joatea oso garrantzitsua dela uste dut. Hemendik aurrerako abenturara joan nahi dutenei esango nieke %100ean mentalizatuta joateko.

Lehiaketak aurrera egin ahala bizitzen dira momentu gogorrak, eta, horiei, fisikoki baino, mentalki aurre egin behar zaie. Niri, %100 mentalizatuta joan arren, zenbait une oso gogorrak egin zaizkit, pentsa lanketa hori egin gabe joaten direnentzat...

Eta nola ikusi duzu zure burua zentzu horretan?

Mentalki ere indartsu sentitu dut nire burua. Hasieran, egokitzen ari nintzenez, zaila egin zitzaizkidan zenbait momentu, baina apurka-apurka martxa hartu nuen. Gogoan ditut bizitako zenbait une zail, lauzpabost gau lorik egin gabe pasa genuenean, edota denbora batez arroparik gabe egon ginenean... Pentsa, bost egun lorik egin gabe pasa eta gero, kanpamentu oso pobrera joan ginen eta inoizko gaurik onena igaro nuen, lo gehien egin nuen gaua izan zen, dagoeneko arropa eta lotarako zakua eman zizkigutelako.

Zer izan da onena? Eta txarrena?

Onera abentura bizitzea izan da, baina batez ere Unai [lehiakidea] ezagutu izana. Ia egunero elkartzen gara eta sekulako harremana egin dugu, lagun oso on bat eman dit telesailak. Badaude beste bizipen on gehiago ere, baina hori izan da bereziena. Iaz gertatu zitzaidana gertatu izan ez balitzait, aurten ez nuen bera ezagutzeko aukerarik izango. Hala gertatu behar zuen, bestela ez ginen elkartuko aurten.

Txarrena, berriz, lehiatzea joan aurretik goseari aurre egitea izango zela uste banuen ere, eltxoen ziztadak izan dira. Ez nuen hainbeste sufrutuko nuenik espero; eromena izan da. Ez geneukan ziztaden hazkura arintzeko produkturik. Saiatu ginen buztinarekin, baina txizarekin ere, baina ez zegoen azkura baretzeko modurik.

Gertukoek nola bizitu dute zure parte hartzea?

Telesaiean nengoen bitartean ezjakintasun eta urduritasunez, batez ere bukaera aldera.

"GOGORRENA GOSEARI AURRE EGITEA IZANGO ZELA USTE NUEN, BAINA ELTXOEN ZIZTADAK IZAN DIRA"

Programaren bidez jakiten zuten ezer gutxi nitaz, eta egunak aurrera egin eta etxera bueltatzen ez nintzela ikusirik, pentsatzen zuten lehiaketan aurrera egiten ari nintzela.

Behin etxera itzulita, bazekiten ondo nengoela eta asko disfrutatu dutela esango nuke. Orain, aurtengoa amaituta, uste dute lehiaketa ona egin dudala eta pozik agertu dira; harro daudela ere esatera ausartuko naiz. *Arrutiren aitak eta osabak Lasarte-Orian duten tabernara joatea besterik ez dago hori hala dela baieztatzeko; orain gutxira arte ez zeuden bi argazki berri ikus daitezke hormetan zintzilikatuta. Seme eta iloba agertzen da horietan, telesaileko une izoztu batzuk dira. Itzultzeko aukera eskainiko balizute, joango zinake berriz?*

Oraintxe ez nintzateke bueltatuko, aurrerago agian bai. Ez dakit zein baldintzatan joango nintzatekeen, baina joatekotan, uste dut lehiakide ohien edizio batera joango nintzatekeela. Momentuz, lehiakide berriekin joatea ez dut ikusten.

Eskerrak emateko baliatu nahi izan du elkarrizketa hau. Telesailari batetik, lehiakide izateko aukera emateagatik, eta etxeko gertukoiei bestetik, horiengandik jaso duen babesagatik.

A Coruñan banderarik lortu ez arren, lehena da

Donostia Arraun Lagunak-ek A Coruñako bandera lehiatu du bi jardunalditan. Oriok eraman du saria. Lugañenek, ordea, bigarren jardunaldian garaipena lortu du eta sailkapenean buru da. Hondarribiak, berriz, ETE Ligako Portugaleteko bandera eskuratu du

Txintxarri

Hitzordu bikoitzak izan dituzte Lasarte-Oria ordezkariak euren txapelketetan. Euskotren Ligan V. Ciudad de A Coruña lehiatu zuen Aiora Belartietak Donostia Arraun Lagunak-ekin batera; Intza Fernandez eta Gaizka Ormazabal, berriz, Portugaleten izan ziren Uri Urena bandera lehiatzen.

Euskotren Ligako traineruak A Coruñan izan ziren lehian, hilaren 9an eta 10ean.

Lehen estropadan Oriok izan zen nagusi. Hasieratik aurrea hartu eta Donostia Arraun Lagunak ezin izan zuen talde horiak ezarritako erritmoa jarraitu. Ziabogan bederatzi segundoko errenta zegoen eta bigarren luzean aldea txikitzea lortu zuten donostiarrek.

Bigarren jardunaldian, berriz, Donostia Arraun Lagunak lortu zuen garaipena. Lehia handia izan zen mirotzen eta Lugañeneko eskifaien artean. Estropada burua maiz aldatu zen; ziabogara batera iritsi ziren bi ontziak. Azken 300 metroetan Aiora Belartietak eta bere eskifaia kideak, ordea, aurrea hartu eta



Donostia Arraun Lagunak-eko kideak igandeko garaipena ospatzen. EUSKOTREN/ A. ARRIZABALAGA

lehenak izan ziren helmugan. Segundo bateko tartearekin iritsi ziren horiak.

Lehenengo eguneko errentari esker, Oriok eraman zuten A Coruñako bandera. Donostia Arraun Lagunak, ordea, ez zen esku hutsik joan. Sailkapen orokorreko lehen postuan jarri da, nahiz eta Oriorekin puntuetan berdinduta egon.

ETEn ere lehia handia

Aipatu legez, egun beretan, ETE zein KAE 2 mailako ontziek Portugaleteko Uri Urena bandera

jokatu zuten Bilboko itsasadarrean.

Euskotren Ligaren antzera lehia handia dago Hondarribia eta Hibaikaren artean. Alabaina, Intza Fernandez herritarra kide duen Hondarribiak denboraldiko hirugarren bandera irabazi zuen, bigarren eguneko jardunari esker.

Lehen jardunaldian hirugarren txanda lehiatu zuen talde berdeak, Hibaika eta Zumaiarekin batera. Hibaika garaile izan zen (11.13,99), Hondarribiak hirugarren postua eskuratu

ASTEBURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTko Garazi Etxeberria junior mailako Espainiako Udako txapelketan lehiatuko da. Hilaren 20tik 24ra. Sabadell, Katalunian.

PILOTA

ZIKUNAGA TXAPELKETA - SENIORRAK

Artetxe (Intza) eta Aranburu (EPL) - Murgiondo eta Aziproz (Irurtzun) Azteazkena 20. Hernanin.

PALA

SANTA ANA TXAPELKETA

Santa Ana Txapelketako finalerdiak jokatu dira. Asteartea 19. Loidibarren pilotalekua.

ZALDIAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiako zazpigarren jardunaldia jokatu da. Sari nagusia Groupe Carrus izango da.

Larunbata 16. 18:40. Hipodromoa, Donostia.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Orioko 22. Emakumezkoen Estropada - Oriok Kanpina X. Bandera eta II. Edinor Bandera lehiatuko ditu Donostia Arraun Lagunak-ek. Larunbata 16 eta igandea 17. Orion eta Zierbana, Bizkaian.

ETE LIGA

Hondarribiak Marina de Cudeyo Dynasol Sari Handia II. Bandera lehiatuko du. Larunbata 16. Pedreña, Kantabriar.

KAE2

Hibaikak Marina de Cudeyo Dynasol Sari Handia Bandera eta Oriok Kanpina banderan parte hartuko du. Larunbata 16 eta igandea 17. Pedreña, Kantabriar eta Orion.

(11.18,70) eta Ohorezko txandarako sailkatu zen, baita bigarren txanda jokatu zuen Deusto ere.

Hilaren 10eko estropadan, ordea, Hondarribia eta Deustoren arteko borroka izan zen portagonista. Hasieratik erritmo altua ezarri zuten bi ontziek eta bilbotarrek eman zuten ziaboga lehenengo. Ama Guadalupeko ontzia segundo batera iritsi zen. Atzean utzi zuen Hibaika eta lehen eguneko bost segundoko errenta galdua zuen ziabogara iristerakoan.

Bigarren luzean, berriz, Hondarribiako eskifaiak erritmoa azkartu zuen; Deustok ezin izan zuen martxa mantendu eta bost segundoko errenta izan zuen helmugan. Hibaika, berriz, ia zazpira iritsi zen.

Banderari esker, ETEko buruan da Hondarribia, Hibaikarekin puntuetan berdinduta.

KAE2 mailan ere, Gaizka Ormazabal kide duen Hibaika Susperregi edukiontzia bigarren

jardunaldian erakutsi zuen bere balioa.

Lehen estropadan hirugarren txandan lehiatu zen. Donostiarra eta Lapurdi Anttonen izan zituen aurrez aurre. Errenteriako eskifaiak ezin izan zituen arerioak jarraitu eta bosgarren denbora onena egin zuen.

Hurrengo egunean, berriz, gorri-beltzek arantza kendu zuten. Bigarren txandan nagusi izan zen hasieratik Hibaika. Astillero eta Mutrikuk ezin izan zuten erritmoa jarraitu eta lehen ziabogan ia hamar segundora zeuden. Tarte ongi kudeatu zuten gorri-beltzek, eta 21.28,62ko denbora egin zuten helmugan.

Ohorezko txandako Portugaletek baino marka hobea egin zuten, hirugarren amaitu zuten jardunaldia gorri-beltzek.

KAE2 Ligako sailkapen nagusian ere hirugarren postuan da Errenteriako ontzia.

Zilarrezko domina European Para Youth Games lehiaketan

Ostadar Inklusioa taldeko boccia eta atletismo sailtako kideak Espainian zein nazioartean izan dira lehian

Txintxarri

Ekain bukaeran bi txapelketa garrantzitsu izan zituzten Ostadar Inklusioa taldeko kideak. Emaitza onak egiteaz gain, dominarik ere ekarri dute etxera. Esate baterako, Xuban Santinek Bocciako zilarrezko domina eskuratu zuen European Para Youth Games lehiaketan, Finlandian.

Ostadarreko kideak BC2 mailan A multzoan hasi zuen lehia. Bi neurketa jokatu eta batean garaile izan zen. Taldeko bigarren bezala finalerdietara sailkatu zen.

Jan Hatak txekiarra garaitu zuen eta finalean David Pinto portugaldarrari egin zion aurre. Alabaina, portugaldarra nagusi izan zen eta Ostadarreko kideak



Ane Asensio, lehian eta Xuban Santin, podiumeko bigarren mailan. OSTADAR INKLUSIOA

bigarren postuan amaitu zuen lehiaketa.

Ekainaren 25 eta 26an, berriz, Espainiako klubaren arteko

atletismo egokituko txapelketa lehiatu zen Gijoneko Las Mestas kirol pistan. Espainia osoko kirolariak bildu ziren bertan eta Ostadar Inklusioa Ane Asensio eta Jon Mendoza ere izan ziren lehian.

Asensio T34 mailan lehiatu zen eta hiru proba egin zituen: 100 m. (44,33), 200 m. (01.22,06) eta 400 m. (02.50,63) lasterketak. Mendozak T36 mailako proba bakarra izan zuen, 100 metroko lasterketa, eta 17,20 egin zuen.

Ostadar Inklusioa taldeko arduradunak pozarren daude hiru kirolariek lortutako emaitza eta lehiaketetan zein denboraldian egindako lanarekin.

"Texas eraldatu eta profesionalizatu dugu"

HARITZ HERNANDEZ TEXAS LASARTEARRA TALDEKO LEHENDAKARI OHIA
Hamar urte egin ditu taldeko zuzendaritzan lanean herritarrek. Futbol eskolaren sustatzailea izan da eta horri esker, egun oinarri sendoa du taldeak

Nerea Eizagirre

Texas Lasartearran Erregional mailako jokalariz izatetik, lehendakari izatera. Hori izan zen duela zortzi bat urte Haritz Hernandez (Lasarte-Oria, 1983) herritarrek egin zuen jauzia. Urte gogorak izan diren arren, pozarren dago futbol eskola sortu eta egun herriko taldeak oinarri sendoa eta profesionala duelako. Angel Rosa kirol zuzendariari eman dio lekukoa eta taldea esku onetan utzi duela uste du Hernandezek.

Nolakoa zen Texas Lasartearraren egoera zuzendaritzan sartzean?

Texas Lasartearra lehen ahal zen modura kudeatzen zen. Jose Cantos eta Manuel Isasa egon ziren lehendakari lanetan eta lan handia egin zuten. Ni haiekin hasi nintzen lanean.

Nahiz eta erregional, jubenil eta kadete taldeak martxan izan, klubarekiko konpromisoa handia ez zela konturatu nintzen; gutxi batzuk egiten zuten lan guztia aurrera ateratzeko eta Texas Lasartearra desagertzeaz zegoela ikusten nuen.

Beraz, jokalariz izatetik zuzendaritzako kide izatera igaro zinen eta gerora, lehendakari.

Bai, horrela da. Erregional taldeko kide nintzen eta taldearengatik lanean hasi



Haritz Hernandez, (ezkerrean) Ostadarren aurkako derbian, kapitain lanetan. TXINTXARRI

nintzen. Pena ematen zidan hainbeste urte eta historia duen entitate bat desagertzea.

Jendearen laguntzarekin, pixkanaka dena eraldatzen joan gara. Texas Lasartearra berriz ere herriko taldea izatea izan dugu helburu.

Zeintzuk izan dira pausoak?

Talde batek aurrera egiteko oinarri sendoa behar du bai bulegoetan, baita zelaietan ere. Eta Ostadar SKT izan da erreferentzia.

Lehen pausoa, 2017an erregional taldea desagitea izan zen eta uda horretan haur eta gazteentzako kanpus bat antolatu genuen.

Orduan sortu zen futbol eskola...

Bai, horrela da. Kanpus horretako jokalariekin eman genituen lehen pausoak. Benjaminekin hasi ginen lanean eta orain maila guztietan ditugu taldeak.

Zaila izan zen. Udalak eta kirol zerbitzuak ez zigun laguntza askorik eman. Andres erregional taldeko kide eta Ismaelen laguntzarekin eta gertuko jendearrekin lortu genuen guztia martxan jartzea.

Eta hurrengo denboraldian, erregional taldea izango du lehian berriz ere Texasek.

Bai, nire ametsetako bat egi bihurtu da. Nire ilusioetako bat

hori zen, Erregional mailan berriz egotea.

Horretarako, estruktura profesionalizatu bat behar zen eta lanean aritu gara horretarako. Azken bizpahiru urteetan zuzendaritzan sartu den jendeak ere asko lagundu du –Angel Rosa, Javier Azurza, Alvaro Jimenez, Jonatan Monroy eta Antonio Mazo–. Jende profesionala da beste arlo batzuetan eta hori nabaritu da. Serioago hasi gara lanean eta bulegoan zein zelaietan taldea profesionalizatu dugu. Maila askotan aldaketa handia izan da. Harro nago eta lasai noa.

Esku onetan uzten duzu taldea, orduan?

Bai. Urte gogorak pasa izan ditugu. Baina oraingo zuzendaritza sendoa da eta Texas aurrera eramango dute.

Taldeak ere egoera onean daude. Jokatu berri duten Salou Youth Cup da horren adibide da.

Eta Federazioan zein Foru Aldundian egiten dugun lana ikusi dute eta aintzat hartu gaituzte. Beraz, harro nago.

Nesken infantil taldea sortzen saiatu zareten arren, ez da posible izan. Hori izan daiteke arantza bakarra. Urteak dira taldea sortu nahian gabiltzala. Pena handia da zortzi urtetatik gure taldean dauden neskek Añorgara edo beste herrietara joan behar izatea.

Udalarekin eta Ostadarrekin ere harremanak izan ditugu proiektua aurrera eramateko baina ez da posible izan.

Ekonomikoki ere guztia aurrera eramatea zaila izango da.

Hasi nintzenezan 1.000 bat euro izango ziren kontuetan. Senai Oiarzungo burdindegia industrial baten babesak izan dugu. Herriko tabernak eta merkatariek ere

ez ditugu ahaztu behar. Euren laguntza txikia bada ere ongi etorria da taldea aurrera eramateko. Horregatik eskerrak eman behar dizkiet.

Esan beharra dago, zuzendaritzako kideen lana musutruk dela. Guk ez dugu ezer kobratu. Fitxak, entrenatzaileak, jantziak, eta abar ordaintzeko erabili dugu jaso dugun dirua.

Familiek dituzten arazo ekonomikoez ere jakitun gara eta horregatik, lan egin dugu haurrek futboleko jokatu ahal izateko.

Familiek egindako lan guztia ikusi dute eta eurei ere eskerrak eman behar dizkiegu guregan jarritako konfiantzarengatik.

Urte gogorak izan direla aipatu duzu. Pandemia ere izan duzue tartean.

Zuzendaritza taldearen lana handia izan da. Norgehiagoka gutxi izan arren, dokumentu pila egin behar izan dira. Lana bikoizten zen lortzen zenuen onurarako.

Bestelako lanak ere egin genituen. Lasarte-Oriako taldea garenaz, herriari lagundu nahi izan genion eta gure aurrekontuaren erdia gastatuz, babes materiala eman genien Atso Bakar egoitzako kideei. Horrelako ekintzak egin behar direla uste dugu.

Herriaren parte izate horrek San Silvestre lasterketa ere sustatzea ekarri du?

Texasena izan zen ideia; lehen urteetan sustatu eta lagundu genuen. Gerora, herritar talde batek hartu du antolakuntza eta pozik gaude sustraitu den proiektua delako.

Irakurri elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus atarian

Aitor Manso herritarra bosgarren Alisas igoeran

Kantabriako proban lehen aldiz parte hartu du herritarrek. Zortzigarren mailako hirugarren sailkatu da

Txintxarri

Aitor Manso herritarrek Euskadiko zein Nafarroako mugak gainditu ditu lehenengoz bere mendi lasterketen ibilbidean. Lehen proba Kantabrian izan da. Hilaren 10ean, Alisas igoera

jokatu zuen gidari gazteak. 7,4 kilometroko proba horretan Espainia guztiko aurkariak izan zituen herritarrek. Irabazlea, ordea, ezaguna du; Euskadiko txapelketan lehiakide duen Joseba Iraola.

Bizkaitarra Nova Np01 ibilgailuan nagusi izan zen. Arazo mekaniko batengatik entrenamendua amaitu ezinik geratu arren, denbora azkarrenak egin zituen gainerako saiakeretan. Bigarren proba kronometratuan 3.28,890ko marka lortuz eraman zuen saria.

Aitor Manso herritarrek, berriz, lehen aldiz izan zuten proban eta ibilbidea ezezaguna zuen. BRC B49a bidera moldatu eta pixkanaka markak ontzen joan zen igoera bakoitzean; entrenamenduan



Aitor Manso herritarra, Alisas igoeran parte hartzen. ALISAS IGOERA / ISIDRO PIÑEIRO

4.03,679 egitetik, 3.52,167 marka egitera igaro zen herritarra. Horri esker, zortzigarren mailako

hirugarren sailkatu zen Manso; sailkapen orokorrean, aldiz, bosgarren izan zen.

Furundarenak, zilarrezko amaiera denboraldiari

Ostadar Atletismoko Naroa Furundarena 23 urtez azpiko Espainiako txapelketan lehiatu da, luzera jauzi eta jauzi hirukoitzean. Azken modalitate horretan podiumean izan da. Bestelako probatan ere izan dira lehen postuetan herriko lasterkariak

Txintxarri

23 urtez azpiko Espainiako txapelketa jokatu zen hilaren 9an eta 10ean Santanderren, Kantabrian. Ostadar SKTko Naroa Furundarenak aire zabaleko bigarren Espainiako txapelketari aurre egin dio. Bi aste igaro dira, ekainaren 25ean, absolutu mailako jauzi hirukoitzeko finalean postua eskuratu zuenetik eta oraingoan, zilarrezko domina jantzi du Lasarte-Oriako atletak.

Hilaren 10ean arratsaldeko lehen proba izan zen jauzi hirukoitzekoa. Lasarte-Oriako atletak aurkari zaila izan zuten, Tessy Ebolese; absolutu mailako txapelketan hirugarren izan zen eta Mediterraneoko Jokoetan ere brontzezko domina eskuratu berri zuten arabarrak.

Lehen jauzietan ez zirudien arren, hirugarrenean Ebolesek bere nagusitasuna erakutsi zuten 13 metroetatik gora jauzi egiten.

Bien bitartean, Naroa Furundarena herritarra bigarren postuan zen. Ezinezkoa egin zitzaion 13 metroetara iristea herritarri, baina 12,72 metroko markarekin –bere marka pertsonaletik zentimetro batera geratu zen Ostadar Atletismoko kidea– zilarrezko domina eskuratu zuten.



Gomez Margallo, Santamaña igoerako lasterketa buruan. J. ZATARAIN

Luzera jauziko proban ere aritu zen herritarra, hilaren 9an. Finalera iritsi zen 5,43 metroko markarekin, eta laugarren saiakeran bosgarren postua emango zion 5,70 metroko jauzia egin zuten Ostadarreko kideak.

Mendian lehiatzen

Herri edo mendi lasterketetan ere izan dira lehiatzen lasarteoriatarak edo herriko taldeko ordezkariak. Asteasuko Santamaña igoeran, esate baterako, podiumean izan zen Raul Gomez Margallo.

Ez zen lasterketan parte hartu zuten herritar bakarra izan, baina Gomez Margallok berriz ere

podiumera igotzea lortu zuen Asteasuko lasterketan. Hilaren 11n, beroari aurre eginez, 80 korrikalarik parte hartu zuten; lasarteoriatarra hirugarren iritsi zen Santamaña ermitako helmugara.

Iraupen luzeko proba ugaritan ere izan dira Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) zein herriko lasterkariak.

Vall de Aranen, Lleidan, UTMB World Series trail running zirkuituko Peades dera Aigua proba lehiatu zen hilaren 7an. LOTMEko Ibon Aguirrek bederatzita ordu 41 minutu eta zortzi segundo behar izan zituen 55 kilometroko ibilbidea egiteko.

Beasainen, berriz, Ehun Milak, G2Handiak eta Marimurumendi probak jokatu ziren eta hiruetan izan ziren herritarak.

168 kilometroko ibilbideari egin zion aurre Asier Otero herritarrek Ehun Milak proban (42.08.48).

G2Handiak lasterketan, berriz, 88 kilometroko ibilbidea egin zuten Jesus Alfonso Rodriguez herritarrek (18.25.04) eta LOTMEko Marc Bages-ek (15.59.47)

Azkenik, Marimurumendi maratoian, LOTMEko Javier Olazagoitiak (04.59.09) eta Josean Lasak (06.02.45) 42,195 kilometroko bidea gainditu zuten.



Miren Sarobe eta Iker Gorostegui, Galdakaoko igerilekuan. BURUNTZALDEA IKT

Sarobek eta Gorostegui, lan ederra denboraldiako azken proban

Buruntzaldea IKTko gazteek euren marka onenetatik gertu egin dute igeri infantil mailako Euskal Herriko txapelketan

Txintxarri

Infantil Mailako Euskal Herriko Udako Txapelketa lehiatu zen hilaren 10ean eta 11n Galdakaoko Urreta kiroldegian. Bertan Buruntzaldea IKTko Miren Sarobe eta Iker Gorostegui izan ziren igerian. Bi gazteek euren marketatik gertu ibili ziren.

Miren Saroberen kasuan, 200 m. lau estilo probako bere denbora ondu zuten zortzi segundotan, 2.37,01, eta absolutu mailako Euskal Herriko gutxieneko marka eskuratu zuten. Tamalez, txapelketa dagoeneko jokatu denez, ez da baliagarria izango.

Horrez gain, 15 urteko beste hiru probatan parte hartu zuten igerilari gazteak: estilo libreko 50 m. eta 200 m. lasterketetan eta lau estiloetako 100 metrokoan. Azken horretan bere marka berdindu zuten. Estilo librekoetan, berriz, bere marketatik gertu izan zen; 29,10 (50 metro), eta 02.16,49 (200 metro).

Hiru proba izan ziren Iker Gorostegui egindakoak, hirurak distantzia berekoak, 200 metroko estilo libre, tximeleta eta lau estiloak, hain zuzen ere.

Bere adineko laugarren

Buruntzaldea IKTko arduradunek aipatu dutenez, "azken boladan behin eta berriro birrindu ditu bere marka pertsonalak eta ondorioz, oraingoan ez zuten marka pertsonalik egitea lortu; baina hala ere, bere erregistro onenetatik gertu ibili zen hiru probetan".

Horri esker, gainera, 16 urteko laugarren sailkatu zen lau estiloetako zein tximeletako 200 m. proban.

Buruntzaldea IKTko arduradunak eta igerilariak pozik daude denboraldiko azken txapelketan egindako lanarekin: "Maila ona erakutsi dute gureek Euskal Herriko txapelketan eta eurek pozik eman diote amaiera denboraldiari".

Santa Ana Pala Txapelketa azken fasean sartuko da

Ligaxkako azken partidak jokatu dira eta hilaren 19an finalerdiak izango dira Loidibarren pilotalekuan

Txintxarri

Ekainaren amaieran hasi zen Santa Ana Pala txapelketa. Sei bikote –Iker eta Jon Pello Artetxe, Jagoba Mendizabal eta Julen Urruzola, Gari eta Xabier Arteaga, Gurutz Iturbe eta Asier

Goikoetxea, Iñaki Castro eta Eneko Mendizabal eta Jon Mikel Arteaga eta Ander Jauregi– daude lehia bizian. Itzuli bateko ligaxka ari dira jokatzeko eta azken partidak lehiatu dituzte egunotan Loidibarren pilotalekuan.

Txapelketetatik kanpo

Bestalde, Intzako zein herriko pilotariak bikotekako txapelketa ezberdinetan ari dira lehiatzen.

Uztailan sartzearekin batera, Jon Pello Artetxe seniorra eta Peru Urdepilleta jubenila

–Hernaniren izenean lehiatzen Zikuñaga txapelketa jokatzeko gogorrak ari dira bikoteak.

Hilaren 7an, Urdepilletak, Deskargarekin batera, taldekide Manterola eta Alegria izan zituzten aurrez aurre. Herritarrek eta bere bikoteak ezin izan zituzten aurkarik garaitu, 18-11. 11n, berriz, Jon Pello Artetxeren txanda izan zen. EPLEko Aranburu lagun, Hernaniko Urmeneta eta Ortiz de Urbina izan zituzten aurkari eta 8-18 galdu zuten.

Villabonako Santio txapelketan zein Donostian Pilotaren txokoa txapelketan ere lehiatu da Artetxe eta bietan kanpo geratu da.

Lehenean, ekainaren 14an, Behar Zanako Ormazabal bikote izan zuten eta Orbegozo-Aranalde oriotarrak izan ziren garaile, 8-22. Bigarrenean, final laurdena jokatu zuten Intzako kide Mikel Elolarekin, hilaren 2an. Oiarpeko Ugalde eta Oberenako Agirrerren aurkako partidaren Elolak eskubiko eskuan min hartu. eta ezin izan zuten partida aurrera atera.

ZORION AGURRAK



Joanes
Zure lehen urtebetetzea ospatzeko prest eta gogoz gauzakuz etxean denok. Muxu handi bat aitaxo, amaxo eta Nikoleren partetik.



Maddi
Zorionak Osoro! "Pasaia" beste urte bat! Zu beti gazte! Mila esker hamaiketakoagatik, indarberri gaitu oporren esperoan! Ondo ospatu! Takuneko lankideen partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrak.
- Zure erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
- Bidali zure zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943-37 16 29
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
KIROLDEGIA: 943-37 61 82
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
KIUB: 943-36 16 05
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
MUNTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
DYA: 943-46 46 22
GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
UDALTZAINAK: 943-36 24 42
ERTZAINZA: 943-53 88 40
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

8		6			4		1	3
	2		8	3	9	4	6	
	3	4			1	5	8	
3				8		6		1
2			3	9				4
7			4	1		3		9
	8	3		4	2			5
		2			3	1	4	
4	9		1		8	2	3	

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 15	ACHA-ORBEA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 16	LASA	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 17	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 18	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 19	GANDARIAS-URIBE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 20	DE ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 21	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.




Jaio da!


Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora,
bidali haurraren izen-abizenak
eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo
688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 15




Larunbata, 16




Igandea, 17




Astelehena, 18




Asteartea, 19



Asteazkena, 20



Osteguna, 21



OHARRA

Heriotzen berri eman

Inguruko norbaiten heriotzaren berri TXINTXARRI-n eman nahi baduzu, bidali zendutako pertsonaren izen-abizenak eta heriotza data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

jarraitu herriko albisteak sarean



www.txintxarri.eus

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldaria eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukakatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Apartamentu bat dut Benidormen, eta alokatzeko eskaintzen dut abuztu, irail eta urrian, hamabost egunez edo hila bete osoz. Harremanetarako zenbakia: 677 35 18 35 (Lourdes)

Exxebizitza bat alokatzen dugu Basaundi bailaran. Sukaldaria, egongela, bi logela, komuna eta balkoi handi bat ditu. Harremanetarako zenbakia: 678 37 40 72 (Joxe Mari).

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratadun apartamentua

alokagai. 60 metro karratadun lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahi izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argitsua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

TAMAINA

ESKAINITZA
Irailean irekiko dugun taberna baterako sukaldari bila gabiltza. Interesa baduzu idatzi hona: arimataldeas@gmail.com.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako

zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko.

Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest nago. Interna, orduka baita asteburuetan ere. Harremanetarako zenbakia: 632 14 84 61 edo 606 66 10 48.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsaldez. Harremanetarako zenbakia: 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Liemii Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka
Morales eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzua

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

ZABALETA BERRI

BIZIGUNEA

SUSTAPEN BERRIA



residencial

zabaleta



berri
bizigunea

943 31 68 68
www.sukia.com